



Iraunkortasunabuletina

Asteazkena, 2024ko maiatzak 29

Zerbakia: 12

CAMPUS BIZIA LAB

Campus Bizia Lab programaren jardunaldia: "GrAL/MALak iraunkortasunaren alde"

Campus Bizia Lab programaren esparruan, ekainaren 19an, Bizkaia Aretoan, topaketa bat egingo da unibertsitate-komunitate osoarentzat eta 2023/24 ikasturtean proiektuek izan dituzten aurrerapenak ezagutzeko interesa duten beste eragile batzuentzat.



GALDETEGIA (CAMPUS BIZIA LAB)

UPV/EHUko berdeguneei eta ongizateari buruzko inkesta



Campus Bizia Lab programako Leioako campuseko berde guneak: aldaketa klimatikori aurre egiteko aukera proiektuak gure unibertsitateko campusetako berdeguneen erabilerari eta pertzepzioari buruzko inkesta honetan parte hartzera gonbidatzen gaitu. Horrela, diseinua hobetzeko eta, hortaz, unibertsitate-komunitatearen ongizatea bultzatzeko ideiak bilduko ditugu. Lagundu iezaguzu!



ALBISTE INTERESGARRIAK

Azerbaijanen ospatuko den COP29ko Espainiako ordezkartzan parte hartu nahi duzu? Klima Belaunaldian ekimenean izena eman!

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, Biodibertsitatea Fundazioaren eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoaren bitartez, Klima Belaunaldia ekimena abiarazi du berriz ere, Espainian bizi diren gazteek Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren Aldeen (COP29) hurrengo Konferentzian parte har dezaten. Konferentzia hori Bakun (Azerbaijan) egingo da, 2024ko azaroaren 11tik 22ra bitartean. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 10ean amaituko da.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/05/29. [7th OECD Roundtable on Cities and Regions for the SDGs](#)

2024/06/25 – 2024/06/26. [TogaGune ikastaroa: Ikaskuntza-Zerbitzua errealitateak eraldatzeko metodologia gisa](#)

2024/06/27. [Naturan Hezi IV Topaketak | Sustriaiak saretuz](#)

2024/10/10 – 2024/10/11. [2nd Transatlantic Symposium on Sustainable Development in Higher Education](#). Matrikula egiteko 2024/08/30era arte zabalik.

2024/10/23 – 2024/10/24/. [Uhinak Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko VI. Kongresua](#)

NEWSLETTER HAU ZURE NEEWSLETTERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasangarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi baduzu, idatz iezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.